

Ardi moztaileak



KIMETZ ARANA BUTROE
BARATZEZAINA

Uharteko artzain egunean azaldu zuten Euskal Herriak nazioarteko ardi mozketa txapelketatan aritzeko onarpena lortu duela. Ofizialtasuna Eskoziako 2023ko munduko txapelketan etorri zen, euskal moztailleek aurkeztutako dosierra eta bertan egindako defentsa bikainaren ondorioz. Berriak izugarri poztu gaitu moztaileren lagunok eta haiekin gabiltzanok.

Herri kiroletan lanbidea aktibo daukan joko bakarra ardi mozketa izan arren, ofizio ezezaguna da jende gehienarentzat. Tradizionalki auzolanean egiten zen, apiriletik ekainera artzain lagun kuadrilla handiak elkartuta. Artaziz aritzen ziren, bakoitzak hamarnaka ardi moztu eta lanak bukatutakoan elkarrekin bazkaltzen zuten. Euskal Herrian badira oraindik horrela ari diren artzain eta etxaldeak. Beste bailara askotan, ordea, artaldeak handiagoak direlako edo hiritartzearen ondorioz, baserriak bakandu eta artzain komunitatea ahuldu direnez, ardi moztaileak kontratatzen dituzte lan hori egiteko.

Makinaz aritzen dira, tablero gainean, mastiletik zintzilik jaisten den kardan bati lotutako guraize elektrikoa-

Makurturik, izerditan,
ardi moztaileek denbora
gutxian izugarrizko
lan karga kentzen
dute, horregatik dira
baloratuak lan hori
txukun egiten dutenak

ri eraginez, mozten ari diren ardiarekin dantzan. Ardi mozketa ez da jarduera garbia, lasto eta simaur artean egiten da, artzainen ukuilu eta txaboletan, artilearen koipea eskuetan geratzen da eta ilea, lanerako erabiltzen den arropetan. Makurturik, izerditan, moztaileek denbora gutxian izugarrizko lan karga kentzen dute, horregatik dira baloratuak lan hori txukun egiten dutenak.

Artzainen langile ibilitako denboran ardi mozketa nuen urteko egunik gustukoena. Korta ardi-mozketarako pres-

tatu, aitite-amama edo lagunak etorri, eta behin artaldea moztuta lasai, pozik, gelditzen ziren etxeok. Nik gogoko nituen ardi moztaileren umorea eta lanerako jarrera, haien furgoneta zaharrak, barruko ohea, aulkipeko txakurrak, tresneria, artile usaina eta kontaktzen zituzten beste tokietako kontuak.

Horrela, ardi moztaile handi bat lagun egin eta harekin ardi harrapatze- ra joaten hasi nintzen. Etxe, familia eta paraje asko ezagutu ditut horri esker, industrialak eta estentsiboak. Ibili gara Bizkaian, Burgosen, Pirinioetan, Asturiasen edo Urbanan, eta topatu ditut ardi moztaile euskaldunak, ingelesez ari zirenak, frantsesak, italiar eta espainiar- rnak. Izugarri gozatu dut guztiakin eta mundu horren partaide izateaz guztiz eskerturik nago.

Ofizialtasunak balio dezala lanbi- dea ikusgarri egiteko, zazpi lurral- deetako ardi moztaileren arteko har- rremanak sendotzeko, gazteei bidea zabaltzeko, lan baldintzak hobetu eta munduan gu geu garen bezala elkar- turik azaltzeko. Zorionak eta 2026ko munduko txapelketarako, aurrera, euskal moztaileak. ●



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENU BEREZIAK
EKITALDIAK , OSPAKIZUNAK, FAMILIA TOPAKETAK...

USURBIL · 943 37 11 50 · www.atxegajauregia.com